

argazkigintza > argi-ITZALAK



Goikoan, hurrekin egindako argazkiak. Behean, bidaietako irudi bi.



Argazkia, festa aitzakia

Nekane Aranburu donostiarrek denetarik argazkiak egiten ditu, baina gehien-gehien argazki muntaketak gustatzen zaizkio.

IDOIA ETXEBERRIA

Umea zela, etxean ipuinak balira bezala erakusten zizkieten argazki albumak. Hainbeste istorio zegoen ezkutatuta argazki bakoitzaren atzean... Nekane Aranburu donostiarra orduantxe hasi zen irudiekin zaletzen. Hamabi urterekin lortu zuen lehen argazki kamera, Loiola txokolate tableten estalkiak pilatuz. Hala bihurtu zen argazkilari. Eta 20 bat urterekin hasi zen mundu magiko horretan sakontzen, ikastaroak egiten, Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen. «Tailer batzuk ere egin ditut: Gasteizen, Bilbon...». Egun, argazkia adierazpide bat da berarentzat. Argazki muntaketak egiten ditu. Festatik asko duten muntaketa alaiak, hurrez inguratuta.

Argazkigintzan hasi zenetik, mota askotako argazkiak egin ditu. «Orain ere denetik pixka bat egiten dut, bainagehien, estudioko argazkiak. Estudio txiki bat dut, eta erretratuak egiten ditut. Batez ere, haurrenak». Denbora librean.

«Baina gehien gustatzen zaidana gai bat jarri eta argazki muntaketa egitea da. Kalean argazki bila ibili beharrean...». Argazki prestatuak dira, baina freskoak ere bai. «Normalean umeekin egiten dut lana; haurrak bilatzen ditut, eta argazki jarduera antolatut». Lagunei esaten die, ospitaleko lankideei... «'Umerik baduzue? Bai? Ba etorri!». Badakite argazkilaritza gustatzen zaidala, nolako lanak egiten ditudan, eta segituan esaten dute baietz. Argazki bakoitza festa baten antzekoa izaten da».

Jendea gustatzen zaio Aranbururi: «Interesatzen zaidan sekuntzian sartzea jendea. Argazkia pentsatzen dut lehenengo, eta zenbat jende beharko dudana». Hurrengo egurrezko trineo batekin egingo dute, Kontxako hondartzan. «Haurrak eta zakur bat behar ditugu. Eta une horretan irteten dena izango da argazkia». Espresioak bila-



■ nortasun aciria

- **Izena:** Nekane Aranburu.
- **Jaio:** Donostian, 1954an.
- **Ogibidea:** Ospitale laguntzailea, Donostiako Onkologikoan.
- **Argazkilaritza:** 12 urterekin lortu zuen bere lehen argazki kamera, eta bere kabuz aritu zen, Gipuzkoako Argazkilari Elkartera joaten hasi zen arte, 20 bat urte zituela.
- **Lehiaketak eta erakusketak:** Argazki nahiz kartel lehiaketetan hartzen du parte noizbehinka, eta baditu sari batzuk. Taldeko erakusketa zenbait ere egin ditu; nabarmenena, duela lau zapabost urte antolatut zuten *Mujeres de ayer y hoy* (atzoko eta gaurko emakumeak).
- **www.federacionfotovasca.org**

tzen ditu, «eta xehetasunak, argazkiari begira hasi eta hasieran ikusten ez dituzunak».

Zuri-beltzarekin hasi zen, baina orain digitalarekin dabil. Hori bai, badu gela ilunaren nostalgirik: «Oraindik gogoan dut usaina, argi gorria... Oroitzapen on asko ekartzen dizkit». Bidaia argazkiak ere egiten ditu; umezalea izateaz gainera, mendizalea eta bidaiazalea ere bada. «Aurten Argentinan egon naiz, hilabetez, baina Asia ere asko gustatzen zait».

JON MAIA
„Apaizac Obeto“
 → hitzaldia 11:00etan ←
 01 osteguna Kafe Antzokian
 Antolatzailea: Gabriel Aresti Euskaltegia
 - Doako Sarrera -

KARIDADEKO BENTA
„San Quirico“
 → kontzertua 22:00etan ←
 01 osteguna Kafe Antzokian
 - Aurrezalmenta 8e. Txarteldegian 10,00e -
 Zenbat gararen lagunak 5,00e